filosofia saila

# HERAKLITOren izadiari buruz

5. udako euskal unibertsitatea

LIBURXKA
HER

HABE Liburutegia 8016395
LIBURXKA HER

SIGNATURA:

16.179

# H E R A K L I T O r e n

# " I Z A D I A R I  B U R U Z " .

HABE
Liburutegia

1. Lógos hau (1), izan, beti delarik ere, gizonek ez dute ulertzen ez (hartaz) entzun aurretik, ez entzunda gero ere. Gauza guztiak lógos honen arabera direlarik ere, ba dirudi zenbait jende ez dela hartaz ohartzen (2), nahiz eta jende berau halako hitzak eta egintzak esperimentatuz bizi, nolakoak baitira nik neure gogaketan darabiltzadanak, bakoitza bere izaeraz berezirik eta nola den adieraziz. Gainerako jendea esnai dabiltzala egindakoez ere ez da ohartzen, lotan egindakoez oroitzen ez diren bezala.

2. Beraz, (denekikoari, hau da) arruntari behar diogu jarraitu: denekikoa, hala baita arrunta. Logos-a arrunta izanik, bada, jakituria berezia bai'luketen bizi dira gehientsuak.

3. (Eguzkiaren tamainaz) giza-oinbete da zabal.

4. Gorputzeko atseginetan baletza zoriona, zoriontsuak generitzeke idiei, jateko algarrobak aurki lohazketenean.

5. Zenbaitzu, odoletan kutsatuz garbitu ohi dira. Inor lokatzatan sartu eta lokatzaz garbituko bai'litzan da hori. Burutik dagoela emango luke, ordea, inork, hartan ari delako hari akar egingo balio. Irudi hauei ere otoitz egin ohi diete: eraikinei (etxeei) inork arren egingo balie bezala da, jainko eta gizauren zeintzuk diren arrastorik gabe.

6. Eguzkia, egun oro berritu bakarrik ez, baizik etenbako bere berrian dago beti, Heraklitok dioenez.

7. Izaki guztiak ke bihur balitez, nabariko lukete, noski, gure sudurrek.

8. Kontrakoa aldeko da gertatzen (k. zama-kide, laguntzaile, da g.) eta (gauza) desberdinetatik sortu ohi da harmoniarik ederrena, dio Heraklitok (eta burruka batetik datorrela dena).

9. Besterik da saldiaren atsegina, besterik zakurrarena, besterik gizakiarena. Heraklitok dioenez, lastoa nahiago lukete astoek urrea baino; urreari baino gusto hobea hartzen baitiote astoek jatenari.

10. Halaber, kontrakoen irrikaz bizi da izadia eta kontrakoetatik lortzen du batekoa ( ), ez antzekoetatik. Horrela, konturatzeke ohi doa harra emearengana,eta ez iñola biotako bakoitza bere seksu-kide arengana. Eta lehenengo gogaidetza edo elkartea kontrakoen artean korapilatu zen, ez kide eta antzekoen artean.

Arteak berak, izadiaren pausoetatik ibilki, hori bera egiten duela dirudi. Pinturak, adibidez, kolore zuri eta beltzezko, hori eta gorrizko izakiak nahasiz,ereduaren antzeko irudiak ateratzen ditu.

Musikak berak, doinu biziak eta lodiak ( ), luzeak eta laburrak tonu desberdinetan emanaz, eresi bakarra konpontzen du.

Gramatikak ere, bokalak eta kontsonanteak lekuan-lekuan ipiniz ( ), burutzen du (hitzaren) Arte guztia.

Berau da, noski, Heraklito ilun hark esan zuguna: Batekoak dira osoa eta ez-osoa, ados dagoena eta ez-ados, kantuan kontzertuki diharduena eta des-kontzertuki: denetatik bat, eta batetik denak.

11. Alimanietatik, bai basatiak eta eskukoiak, bai aidean eta lehorrean eta uretan bizi direnak, sortu, hazi eta akabatu jainkoaren halabearrez ( ) egiten dira. Norraz dabilen oro zigorrez da erabilia, dio Heraklitok.

12. Gora-oldar sumakor bat dela arima, dio Zenonek, Heraklitok berak bezala. Eta, arimak beti gora-oldar pentsatzaile direla argitu nahirik, hibaiekin idekotu zituen, honela idatziz: hibai hauetara beretara sartzen direnentzat ur batzuk eta bestetzuk doaz amilka. Arimak ere uretatiko lurrinak dira.

13. Itxurazko gizonak ez du ez zikindu, ez beztu, ez eta lohitan pozik ibili behar, Heraklitoren esanera: Herriak gustorago ohi dabiltza ur lohietan, garbietan baino.

14. Zeintzuendako ari da iragarketan Heraklito? Izarlarientzat, aztientzat, bakotiarrentzat, menadeentzat, misterioetan argituentzat( ) Heriotz-ondokoez egiten die zemai eta mehatxu, batzuei; sua iragartzen die bestetzuei. Izan ere, jendeak misterio deritzen hoietan sagara gabe baitira argituak argitzen.

15. (Erlijio-) ibilia ospatu eta (zakil-) eresia kantatu, Dionisioren omenez ez balute egiten, egitekorik lotsagarriena litzateke hori. Bat bera dira, baina, Hades eta Dionisio, zoro amorratuenak eginaz eta berba erotuak esanaz ospatzen dutena.

16. Itzur dakioke, agian, inor zentzu-argiari; pentsamentuarenari, ordea, ezin. Edo, Heraklitok dioenez: Nola itzur inor izkuta ezinari?

17. Honelako gauzak, aurkitu dituztenek berek, askok behintzat, ez dituzte pentsatzen; ikasirik, ez ulertzen, beraiei baietz irudituarren.

18. Esperantzarik ez baldin bada, ezustekorik ez da idoroko, (galdezka) idoro ezina eta ezlekutakoa baita.

19. Sines-gogorrak direla zenbaitzu, dio ¿ziztaka? Heraklitok: ez entzuten ez hitz egiten ez dakitenak.

20. Gizadiaren (giza-arrazaren), jaiotzaren salatzeile azaltzen zaigu Heraklito, hau dioenez: jaio direnetik, bizi egin nahi dute eta zoria beren esku ukan, -oporrean egon, hobeto esateko-, eta haurrak uzten dituzte heriotzarako. ( ).

21. Heraklitok ere jaiotzari ez deritza inola heriotza, honela baitio: Esnai ikusten dugun guztia, heriotza; lotan ikusten dugun guztia, ametsak.

22. Urre-bila dabiltzanak lur asko aitzurtu ohi dute; urre gutxi idoro, baina.

23. Hok gauzok izan ez baziren, Zuzena-ren izena ere ez zuketeen jakingo.

24. Gudan hildakoek jainkoen oniritzia dute eta gizonena.

25. Hildako haundiek zori haundiagoak dakarzte ondotik.

26. ~~Gizonak, gauez, argia bizten du beretzat /hilda (bezala) dagoelarik/ begiak begi bixtan itzalita;~~

26. Gizonak, gauez, argia bizten dio bere buruari /hilda (~~bezala~~) egonik/ ~~begiak~~ (begi)bixta~~n~~ itzalita/ dagoelarik; bizi dela,(hildakoaren)argia bizten du(heriotzetik) lo egonik; esna dagoela,(loak hartuaren) argia bizten du(lotatik

27. Itxaro eta uste ez bezalako gauzak dagozkio zain gizonari hil-ondoren.

28. Gizonik buru-argienak oponioak besterik ez daki eta hoiei lotzen zaie lotu. Zuzentzat, halabainan, falsikinak eta falsikin-testiguak arrapatu egingo ditu.

29. Prestuenek gauza bat hobesten dute beste edozer baino: (gizon) hilkorren betiereko ospea. Leporaino (beteta) jartzen dira, ordea, gehienak, abereen gisa.

30. Mundu hau, bat bera denontzako, ez zuen ez jainkoetako ez gizonetako inork egin; beti izan da, baizik, eta da eta izango ere su beti-bizi, neurriz biztu eta neurriz itzali egiten dena.

31. Sortua (sorkaria) suntsikor ere dela erabaki zuela (Heraklitok) ondoko hauek adierazten dute: suaren bilakaerak, lehenengo eta behin itsaso; itsasoaren erdika, berriz, lehor; eta beste erdika, ekaitz. Bortizki baitio (Heraklitok), sua, logos-en eta jainkoaren esku-(gobernatzaile)-tik, eguratsean zehar zerbait urtsu bihurtzen dela osoro, kosmo-aldakuntzaren hazi edo sustrai bezala: eta horri itsaso deritza. Itsasotik, berriz, bertan-bera lehorra da sortzen eta ortzia eta ingurukoak. Eta nola berriro lehengoratu eta su bihurtzen den argi eta garbi darakus honako hauetan: lehorra itsaso desegiten da eta lehengo bereko neurrietan doa, lehor bilakatu aurretiko erara, alegia.

32. Tó bat-ek, tó jakintsu bakarrak, Tzeus izena ez du hartu nahi eta nahi du hartu.

33. Bakar baten nahira ere makurtzea legea da.

34. Ergelak, entzuten dutelarik ere, gorren antzeko dira; haueri dagokie esaera: aurki daude eta urruti.

35. Komeni da komeni, filosofoek gauza askoren jakile daitezen, dio Heraklitok.

36. Arimentzat, ur bilakatzea, heriotz; hurarentzat, lur bihurtzea, heriotz. Ura lurretik jaiotzen da, ordea, eta uretatik arima.

37. Heraklito efesotarrari sinestera, zerriak lokatzatan garbitzen dira; kortako egaztiak, berriz, hautsetan edo errautsetan: hala baitio hark.

38. Senbaiten ustez, Tales izan zen lehenengo astronomua (izarlaria): hala aitortzen du Heraklitok, eta Demokritok ere.

39. Priene-n sortu zen Bias, Teutames-en semea, eta haren ospea beste inorena baino haundiagoa da.

40. Buruan gauza asko sartuak ez du zentzuduna izaten irakasten; bestela, Hesiodo eta Pitagoras, baita Jenofanes bera eta Hekates ere irakatsi izango zituen.

41. Hontan bakarrean datza jakinduria: guztia guztien bitartez gidatzen duen arrazoin hura ezagutzean, alegia.

42. Jokoetatik bidaltzea (aienaraztea) merezi zuela Homerok eta zigorrak hartzea, eta Arkiloko-k berdin, esan ohi zuen.

43. Beharrago da nabarmenkeria itzali, erreketa baino.

44. Harresien alde bezala behar du herriak legearen alde oldartu. Legearen alde, harresien alde bezala behar du herriak oldartu.

45. Ariman barna abiatuta, ez zenuke hondoa joko bide guztia ibilita ere: halako neurri sakonak ditu!

46. Gaitz sakratua zeritzon iritziari (oponioari, ¿pentsamentuari?) eta iruzurra ikuspenari.

47. Zerik handienei buruz ez gaitezen errazak geure iritzia ematen.

48. "Bíos", bizitza: hala du uztaiak izena (biós); heriotza,ordea, haren lana.

49. Bat hamarmila niretzat, hoberena baldin bada.

49a. Hibai beretan sartzen gara eta ez gara (sartzen); ba gara eta ez gara.

50. Dena dela banagarri ezbanagarri, sortua ezsortua, hilkor ezhilkor, lógos betiereko, aita seme, jainko zuzen, dio Heraklitok. Ni ez, baizik arrazoina dantzutenek, burubidezko da hau aitor dezaten: dena bat dela, Heraklitok dioenez.

51. Hau denek ez jakin ez eta aitortu ere egiten ez dutelako, honela akar egiten die: zera ezberdinak nola ados dauden ez dakite: kontra--itzulitako ( ) harmonia, alegia, hala-nola gezi-uztaiarena eta lirarena.

52. Aldia haurtxo bat da dama-jokoan (edo zozketan). Haurtxoarena da erreinua.

53. Gauza guztien aita da guda, alde batetik; guztien errege,bestetik. Batzu jainko egin ditu, bestetzu gizon; batzu gatibu,bestetzu libre.

54. Izkutuko harmonia agirikoa baino areago.

55. Zer dudan ikusten, entzuten, ikasten, hau dut gehiena estimatzen. (Zer ikusi, entzun, ikasi: hura nik gehiena estimatu).

56. Engainatuta dabiltza gizonak agiriko gauzen ezaguerari buruz, Homero, Greziako gizonik jakintsuen hura bezalatsu. Homero hura, bada, mutiko harkakuso-akabatzaile batzuek engainatu egin zuten, honela ziotelarik: ikusi eta arrapatutako guztia utzi egiten dugu atzera; ez ikusi ez eta arrapatu ere egiten ez dugun guztia gerekin ohi daramagu.

57. Gehienen irakasle, Hesiodo. Asko zekiela honek, diote, eguna eta gaua ezagutzen ez zituelarik: gauza bera baitira.

58. Bai ona bai txarra, gauza bera da. Beraz, midikuek gaisoa ebaki, erre, alde guztietarik oinazeztatu ondoren, osasuna eta gaitza emanik, hartzea merezi ez duten saria eskatzen diote oinazeztatuari, dio Heraklitok.

59. Ilagabiaren ( ) ibilia, aldiberean zuzena eta okerra ozanik, (ilagabian, barakuilu deitu-tresnaren joan-etorria zuzena baita eta okerra: goraka eta inguruka bait dabil), bat eta bera da, dio.

60. Gorako eta beherako bidea, bat bera da.

61. Itsasoa, urik garbiena eta zikinena, arrainentzat edangarri eta bizigarri; gizonentzat,ostera, edan-ez-garri eta hilgarri.

62. Hilezkorrak hilkor, hilkorrak hilezkor, hauen heriotza haiek bizi-(dutela)rik, haien bizia hauek hilik.

63. Aragiaren biztueraz ere mintzo da Heraklito, jaioak garen bixtako aragi honen biztueraz, alegia, eta jainkoa dakusa jaikiera honen e(ra)gile, honela idazten duelarik: han denentzat da jaikitzea eta, esnairik,bizien eta hilen begirari izatea. ( ).Kosmos (mundu) honen eta bertako gauza guztien bereizkuntza (krísin)suaren bitartez egiten dela dio dio gainera, honela idatziz: tximistak darabiltza, -hau da:
64. zuzen-zuzen daramatza- gauza guztiak, tximistari "betiko sua" deritzola. Hala berean, zuhurra dela hau su hau, dio, eta gauza guz-
65. tiekiko zuzenbidearen (dioikeseos) zioa./ Izenez,guraria(ez-eukia) eta asea diotsa su horri. Gurari hori,berriz, munduaren erakundea
66. (diakósmēsis) da; eta ase, erreketa, hark dioenez./ Su irentskor horrek dena du epaituko eta menperatuko, dio.

67. Jainkoa eguna da eta gaua, negua eta uda, guda eta bakea,asea eta gosea /bata bestearen kontrakoak denak: hau da adimena (noūs) 7 eta bestelakotu (era-aldatu) egiten da sua bezala usaigozoz nahasiz gero, eta usain gozoaren arabera hartzen du izena.

67a. Honela, eguzkitik datorren bero bizigarriak bizidun ororí bizia damaio Esaldi honi atxikirik, gonbarazio bat dakar guztiz egokia Heraklitok: armiarmarena, arimarentzat; eta armiarma-sarearena, gorputzarentzat. Eta dio: armiarma bat, sarearen erdi-puntuan egoki, euliak hari bat hauts badezaio, bertan-bera somatu eta, urratu horretan min bai'luen, hara oldartzen den bezala: halaberean, gizonaren arima ere,gorputz--une batean min eman dioteneko, hara doa sostean gorputzeko zauria jasan ezinik bezala, gorputz horri unez-une irmo itsatsita dagoelako.

68. Horregatik, noski, ("misterio"en ospakizun nabarmen) haiek sendagai deitu zituen Heraklitok, gaitzak sendatzeko eta arimak zorigaiztoen sorkunderako mintz-urratuak ( ) egiteko bai'liran.

69. Bitarikoak ipintzen ditut opariak: batzuk, gizon arrunt garbienak, halako baten bat inoizko behin gerta bait diteke, Heraklitoren ustez; edo errez kontatzeko gutxi batzuenak. Materiazkoak (materialak) dira beste gainerakoak.

70. Ume-jostailu zirela gizonen oponioak, uste zuen Heraklitok, eta ederki uste ere.

71. Gogoan izan bai eta bideak nora daraman ahazten duena ere.

72. Askoz ere gehiena biltzen zaien lógos-ekin, gauza guztiak darabiltzanarekin, bihurri daude, eta egunoro ankapuntan darabiltzaten gauzak arrotz egiten zaizkie.

73. Ez da lo daudenak bezala aritu eta mintzatu behar; hala dihardugula eta hala hitz egiten dugula ematen baitu inoiz.

74. Ez da haur "aitakondo" izan behar, beretikorik ezergabea bezala, alegia: -"Guk, geure aitak erakutsi ziguna!".

75. Lo daudenak -gile direla, eta munduan agitzen direnen egile, uste dut dioela Heraklitok.

76. Lurraren heriotzetik bizi da sua,
suaren heriotzetik bizi da aidea,
aidearen heriotzetik bizi da ura,
urarenetik lurra.
Suaren heriotza jaiotza zaio aideari,
eta aidearen heriotza jaiotza udari.
Lurraren heriotza ura dela,
eta uraren heriotza aide dela eta aidearena sua,
eta alderantziz.

77. Hortik,bada, Heraklitok esan:
-urezko bilakatzea atsegin edo heriotze
dela arimentzat; izatera iristea zaiela haiei atsegin.
Beste nonbait ere ba dio, haien heriotza bizi dugula guk,
eta, alderantziz, gure heriotza bizi, haiek.

78. Giza-izakerak ezagutzarik ez du, jainkoarenak ba du.

79. Gizonak berari "haur" (esaten) dantzu jainkotasuna (daímōn),
haurrak gizona bezala.

80. Jakin behar den gauza, noski, guda arrunta (guztiekikoa, orokorra)
dela eta zuzentasuna, burruka; eta burrukatik eta beharretik sortzen
direla gauza guztiak.

81. Erretorika-Sarrerak ikaskizun (edo teorema) guztiak hontara ditu zuzenduak eta, Heraklitoren ustez, bera da haiztoen asmatzailea. Hitzen teknikari deritzoe "haizto" batzuk, eta Timeok berak ere bai, noski, honela idatziz: argi dago haiztoen asmatzailea ez dela Pitagoras, ez eta Heraklitok egozten dizkionena ere; Heraklito bera bai hitz-arro galanta.

82. Zimorik ederrena itsusia da giza-endarekin alderatzeko.

83. Gizonik jakintsuena zimino bat da jainkoaren aurrean, bai jakindurian, bai ederrean, bai gainerako guztietan.

84a. Aldatuz hartzen da atseden.

84b. Gaitz da lehiatu zaren beraien mende egotea.

85. Latza, nor bere buruari oldartu beharra: zeure arimaren truke erosiko baituzu gura duzuna.

86. Jainkozko gauzarik gehienak sineskabeaz da buruan sartu ezina.

87. Gizon kamutsa hitz oroz ohi da txunditzen.

88. Gauza bera da bizi eta hil, esna eta lo egon, gazte eta zahar izan: aurrenekoak bigarrenera jotzen baitu, eta bigarrenak aurrenekora.

89. Esna daudenek, mundu bat bera dutela denek, dio Heraklitok; lo daudenetatik, ordea, bakoitza bere mundura dela joanik.

90. Gauza guztiak su bilakatzen dira eta sua gauza oro bilakatzen da: urrea salgai-truke eta salgaia urre-truke bezala.

91. Hibai berean ez dago bi bider sartzerik, dio Heraklitok; ez eta izaki hilkor bat lehengo berera birritan ekartzerik; baizik eta, erru bizian aldatuz, banatu egiten da eta berriro kopurutu; (areago baizik, behinik eta berrizik gabe, behingo-behingoan bertaratzen-aldentzen da); aurki da eta urrun.

92. Ez duzu ikusten..., zer zoramen darien safotar olerkiei (eresiei), entzuleak zoratu eta liluratuta utziaz? Sibilak,ostera, hitz gatzbako, itxurabako eta traketsak bere aho arrabiatutik ialgiz, -Heraklitok dioenenez- milaka urte dirau, duen jainkoagatik ( ).

93. Iragar-lekua Delfos-en duen jaunak (iragarpenik) ez du hitzez argitzen ez izkutatzen, atzemateko arrastoak ematen baizik.

94. Eguzkia ez da bere mugetatik ialgiko; Eriniek, Zuzenbidearen begirariek, atzemango lukete atzeman, bestela.

95. Hobe litzateke jakin-eza izkutatu; nahiko lan, ordea, zabarkerian eta ordikerian. Jakin-eza, hobe izkutatu argira atera baino.

96. Egotzi beharragoak dira hildakoak, zimaurra baino.

97. Ezagutzen ez dituztenei zaunka egiten diete zakurrek.

98. Hades-usaina darie izpirituei.

99. Eguzkirik ez balitz ere, beste izarrak-arren, izango litzateke gaua.

100. ...itzulinguruak: eguzkia da hoien gidari,eta, bidebatez, aldaketak eta emaitz guztien ekoizle zaizkigun urte-aroak mugatu, zuzendu, erakutsi eta aldarrikatzeko begirari, Heraklitok dioenez.

HADE
Liburutegia

101. Nere burua arakatu nuen.

101a. Gailu batzuen gisa, bi zera ditugu, geurezkoak; hoien bitartez dugu nabaritzen eta zernahi eginkizunetarako gara baliatzen: entzumen-ikusmenak, alegia. Ikusmena zoliagoa, baina, eta askoz gainera, Heraklitok dioenez: jakile zehatzagoak begiak, belarriak baino.

102. Dena eder, dena on, dena zuzen, jainkoarendako; gizonek, ordea,( ) zenbait (gauza) zuzen-kontrakotzat eta beste zenbait zuzentzat jo ohi dute.

103. Obuaren zirkunferentziak puntu bera du buru-buztan.

104. Zer buru dute edo zer zentzu? Herrietako koblariei men egiten diete eta gizateria ( ) darabilte maisu, askoak txarrak direnik jakiteke, eta gutxi baizik ez onak.

105. Hektor-en laguna zen Polidama, gau berean sortuak biak. Hortik dio Heraklitok astrologua dela Homero; eta beste pasarte batean: patuari ez zaio itzuri gizonik inor, etab.

106. Zorigaiztoko egunei buruz, halakotzat batzuk hartu behar diren ala ez, arrazoiz astintzen du Heraklitok Hesiodo, batzuk on beste batzuk txar bereizten zituelako, egunak berez oro bat direla ez jakinik; beste pasarte batean, berriz, enuzu-banuzu dago.

107. Lekuko txarrak dira begiak eta belarriak izpiritu basatia (landugabea) duten gizonentzat.

108. Entzuten egon natzaion inor ez da oraindik hontara heldu, alegia: orotarik barezi dagoela (gauza) zuhurra.

109. 95-ekoa bera.

110. Gizonentzat ez da on nahi duten guztia gerta dakien.

111. Gaitzagatik, noski, osasuna atsegin eta on; betekadagatik gosea; oporragatik nekea.

112. Zentzuzkoa izatea da bertuterik handiena; eta,egia esan eta nork bere izatearen arabera ohartuki ihardutea, jakinduria,

113. Guztiok dugu pentsatzea. [Arrunta da (komuna da) pentsatzea].

114. Burubidez mintzatzen direnek guztiekikoan tink egon behar dute, herria legean bezala, eta askoz areago. Gizalege guztiek bakar batetik baitute beren indarra: jainkolegetik, alegia. Ahalik, nahi adina baitu jainkolegeak, guztiak lain da, eta guztien gaineko.

115. Arimarena da lógos-a, berezko hazitzea duena.

116. Gizon orok du bere burua ezagutzea eta zuhur izatea.

117. Gizona, moskortu denean, mutikotxu bat gidari, hor doa alderoka, nondik dabilen arrastorik gabe, arima bustia duela.

118. Arima distirakor lehorra, jakintsuena eta hoberena; (hobeto esan:) arima lehorra, jakintsuena eta hoberena.

119. Patu gizonarentzat bere izaera. (Patu du gizonak bere izaera)

120. Hobeto, noski, eta homerokiago bidebatez, Heraklitok, toũ arktikoũ-ren (iparralderen ?) ordez tẽn árkton (artz-eme) erabiliaz. Egunsentiaren eta arratsaren mugak baitira ("bost-izarrak"edo) artz-emea, Jupiter argiaren zelataria puntako-izar dela ( ). Iparralde (?) hori, baina, sortalde-sartaldeen muga da; ("bost-izarrak") artz-emea ez baizik.

121. Efesotar larri guztiek hobe zutekeen beren buruak urkatu eta gaztetxoen esku beren hiria laga; Hermodoro, beren arteko gizonik dontsuena, herbesteratu baitzuten, esanaz: hoberenik ez bedi inola gure artean; izanenean, beste nonbait eta beste batzukin.

122. Elkarrekin bihurri-(jar-)tzea: hurbiltzea, dio Heraklitok.

123. Izadiak inoren bistatik izkutatu nahi izaten du, Heraklitok dioenez.

124. Ulerkaitza ( ) zirudikeen honek, alegia, ortzi osoa eta bere alde bakoitza, dena tajuz eta burubidez (lógõi), dena bere molde, oldar eta itzulingurutan ezarrita egon izan bazen; bainan lehenengo hartan ez zen horrela; mundurik ederren hau iraizean aizatu-zaborreriaren antzeko zen, baizik, dio Heraklitok.

125. Zadura-badura ( ) bera ere mindu egiten da, nahastu ezean.

125a. Pluton hura itsu ematen digu (Plutarko-k?), bertutearen ez baizik, grina txarren piztaile denez. Hortik, bada, Heraklito efesotarrak, bere herritarrak ara(o)katuz, ez erregutuz, esan: aberastasunak ez ahal dizue eskuetatik alde egingo, efesotarrok, horrela gaiztotzat etsi dezazuen!

126. Hotza bero da bilakatzen; beroa hotz; bustia lehor; lehorra busti.